



**2017KO EKAINAREN 30EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita hamarrean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Ane Irastortza Izagirre Alkateordearen lehendakartzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Bere ezin etorria adierazi dute Felix Urkola Iriarte alkatea eta Marian Zufiria Apeztegia zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateordeak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko ekainaren 16an an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 59 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMO (34.845,11 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Kulturako zinegotziak egindako diru laguntza proposamenak ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Luis Reta Lasa.- Danborrada taldeari arropak berritzeko 2.902 € ematea.
- Domarda Kultur Elkarteari.- San Prudentzio Jaietan bakailau lehiaketa eta sardina jana jarduerak antolatzeagatik, 3.967 € ematea. Lehen aurreratutakoa 3.000 € izanik orain 967 € ordainduko zaie.
- Lazkao Kirol Elkartea.- San Prudentzio txirindulari proba antolatzeagatik 6.648 € ematea. Lehen aurreratutakoa 6.000 € izanik, orain 648 € ordainduko zaie.
- Izaskun Altuna Beristain.- San Prudentzio Jaietan Lazkaomendin jokuak antolatzeagatik 1.500 € ematea. Lehen aurreratutakoa 1.125 izanik, orain 375 € ordainduko zaio.
- Joxe Ramon Sala Elizondo.- San Juan Txikiko erromeria antolatzeko 570 € ematea. Lehen aurreratutakoa 500 € izanik, orain 70 € ordainduko zaio.

IV.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak egindako diru laguntza proposamenak ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Lazkao Txiki Musika Eskola.- 2017ko aurrekontuan izendatuta dagoen diru laguntzaren 2. zatia, %50, 25.000 € ematea.
- Goierriko Euskal Eskola.- Mintzalaguna proiektuaren barruan, urtarriletik ekainera bitartean antolatutako egitaraua bideratzeko, aurreikusitako diru laguntzaren lehen zatia, %50, 5.050 € ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

